

HIZKUNTZA BEREZITUAK: EUSKARARE- NA BAKARRIK EZ DEN ARAZO BAT

Andoni Sagarna eta Tere Barrenetxea*

Ez gara lan honetan euskara aspaldi jasaten ari den zapalkuntzari buruz hitzegiten ihardungo, baina egoera horren ondorioz, eskuartean dugun lan itzela aurrera eramateko markatu beharreko bideak arakatzen saiatuko gara.

Espainierak, frantsesak, ingelesak eta, orohar, azken bi mende hauek baino dexente lehenagotik ofizialtasuna eta Estatuaren babesa lortua zuten hizkuntzak ezarian-ezarian bilakatu dira kultur hizkuntza eta bizimodu modernoak eskatzen duen moduko komunikabide.

Hizkuntza hauen menpean egon diren beste hizkuntzetako hitzunek, ordea, beren komunitateek duten ezaugarri eta bereizgarririk nabarmenea mintzaira dela konturatu direnean eta honi gizartean bere eginkizuna betetzeko aukera eman nahi izan diotenean, egungo bizimoduko komunikazio-premiei erantzuteko kamustua aurkitu dute hizkuntza hori.

Normalizazio-prozesu bati ekin behar izan diote eta normalizazioak laburzki esateko “etapak erretzea” suposatzen du.

Beste hizkuntzetan mendetan zehar egin dena, normalizatu beharrean daudenetan, denbora gutxi berru egin beharra dago. Horretarako ekintza-multzo bat jartzen da martxan: hizkuntzaren standardizazioa edo, dialekto desberdinen gaitetik, gehiengo handi batek, kultura landurako barietate gisa, onartuko duen barietate standard baten sorkuntza, hizkuntzaren modernizazioa, literatur jenero eta berbaldi-mota guztien lanketa, hizkuntzari falta zaion lexikoaren sorkuntza, administrazioarako, irakaskuntzarako eta komunikabideetarako (mass medietarako) hizkuntzaren egokitzapena, hitzunen artean hizkuntza erabiltzearen kontzientzia piztuko duten publizitate-kanpainak egitea, etab.

Ekintza-multzo horri hizkuntz plangintza esaten zaio.

* *Elhuyar taldekoak.*

1. Normalizazioa eta standardizazioa: hizkuntz plangintzaren beharra

Normalizazioa prozesu konplexu bat da eta helburu desberdin askori erantzun behar izaten zaio horrelako prozesu batean. Hitzunen hizkuntzarekiko atxikidura lortzea ez da horien arteko txikiena, adibidez.

Normalizazioa ez litzateke benetakoa izango ahozko literaturaren, esaera herrikoien eta literatura landuaren freskura, zaporea eta edertasuna hizkuntzari ukatuko balitzaizkio ere.

Hauak denak eta beste gauza asko normalizazio-prozesu batean bazterrezinak badira ere, bada gure eginkizunarekin guztiz lotuta dagoen eta hizkuntz plangintzaz arduratzen diren espezialistek biziki azpimarratzen duten beste zerbait: modernizazioa.

Hizkuntza menperatuek presentzia sozial handiagoa zuteneko langintza, tresna eta eragiketa asko betirako galdu dira. Gizarte industrializatuak etengabe sortu ditu horien ordeko berriak eta itxura gabe ugaritu ditu, hizkuntza horiek, deus ere gertatu ez balitz bezala, lehenean zirauten edota ziztu bizian zaharkitzen ziren bitartean.

Normalizazioaren ezinbesteko zeregina da, ba, modernizazioa eta honek hizkuntza tekniko berezitzen sorkuntza suposatzen du.

Hizkuntz arazoez arduratzen direnen aldetik normalizazio-prozesuak jarrera positiboa eskatzen du, hots, egoera desegokian dagoen hizkuntza bat ez da berez konpontzen.

Era desberdinetako zereginak eta erantzukizunak daude noski. Hizkuntzak gizartean bere lekua berreskura dezan komunikateak nahi duenean, erabaki politikoen bitartez bideratu behar izaten da eskabide horren erantzuna eta hori erakunde politikoen lana da.

Hizkuntzalariek, hizkuntz akademiek eta beste erakunde batzuek hizkuntzaren beraren arazoez arduratu behar izaten dute eta hauxe da prozesu honetan beraiei dagokien erantzukizuna, inola ere baztertu ezinekoa. Arriskutsua litzateke gure hizkuntzarentzat bakoitzak dagokion erresponsabilitate-partea beteko ez balu.

Hizkuntz plangintza hizkuntzak dituen arazo sozialen soluziobideak aurkitzeko egin behar diren ahalginen multzoa da. Azken urte hauetan azterketa asko egiten ari dira munduan zehar oso arrazoi desberdinengatik aldakuntzak jasaten ari diren hizkuntza askotan.

Argi dago, plangintzaren arrakasta ez dagoela alderdi tekniko hutsen menpean, soziolinguistikak erakutsi digun bezala, alde eta kontra jokatzeko duten indar sentimentalek ere eragiten bait dute prozesu honetan. Beraz, erabakiak hartu aurretik ahalik eta informazio zabalena eskuratu beharko genuke ahalik eta faktore gehien kontutan eduki ahal izateko. Bide honetatik doaz hainbat herrialdetan egiten ari diren lanak beren hizkuntza bide zabalago batetik abiarazteko.

Modu honetako azterketek hizkuntzaren berreskurapenerako eman beharreko urratsak huts txikienekin ematen lagunduko dute. Baina, horretaz aparte, honelako lanak beharrezkoak dira berrelikadura-prozesuak (feedback) martxan jarri nahi badira. Honek zera esan nahi du, hartutako eraba-

kien eta plazaratutako “produktuen” (hiztegiak, ortografiak, testu liburuak, gramatikak, itzulpenak, etab.) efektibitatearen eta onarpen-mailaren balorazioa egiterik izango genukeela.

Hizkuntz plangintzaren azterketa soziolinguistikoa egitean ikusi beharreko lehenengo gauzak hauetxek dira: hizkuntzarekiko jokabideen aldaketak zein gizarte-sektoretan gertatzen diren eta zeintzuk diren aldaketa horien faktore baldintzatzaileak. Era zehatz batez arakatuko beharko litzateke hizkuntzari buruzko erabakiak nola hartzen diren. Bestalde, erabaki horiek nolako jarraipena duten, onarpen-maila diferenterik badagoen eta non, eta berrelkadura-prozesuaren bitartez emaitza horiek hobe daitezkeen ezagutzeari oinarritzko erizten diogu.

2. Hizkuntzalaritza preskriptiboa

Hizkuntzalari askok muzin egin izan dio hizkuntzaren standardizazioari eta hizkuntzalaritza arauemaile edo preskriptiboari.

Lyons (1969, 43 or.) batek, adibidez, argi eta garbi dio hizkuntzalararien lana deskriptiboa dela eta inoiz ere ez preskriptiboa.

Hizkuntzalari ospetsuenek ondo asentatutako hizkuntzen ikuspegitik lan egin izanean ez ote ditu bere erroak hizkuntzalaritzaren jokabide horrek?

Ez dira eritzi horretakoak izan behintzat beste hizkuntzalari batzu eta badirudi hizkuntza menperatuak dauden edo egon diren lekutakoak direla hain zuzen hizkuntzalaritzari arauemaile izan dadin eskatzen diotenetako batzu.

Malaya-ko Unibertsitateko S. Takdir Alisjahbana (1974, 391 or.) irakasleak, adibidez, argi eta garbi esan du bere ustez hizkuntzalaritza modernoak porrot egin duela XX. mendeko hizkuntz arazoaren aurrean. Bere lanaren pasarte batek honela dio:

“Asia eta Afrikako nazio berriek jakin nahi lukete beren hizkuntzetako fonologia, morfologia eta hiztegia nola aldatu hizkuntza horiek gizartearen indar integratzaile izateaz gainera gaurko munduan komunikabide eta aurrerabide egoki bilaka daitezzen. Nahi luketena ez da hizkuntzalaritza deskriptiboa preskriptiboa baizik.”

Alisjahbana-k Asia eta Afrikako nazio berriei buruz zioena hedatu beharra dago normalizatzeko dauden hizkuntza guztietara zalantzarik gabe.

Valter Tauli (1974) suediar irakasleak ere atzera geratutako hizkuntzentzat hizkuntz plangintzaren beharra aldarrikatu du. Honela dio:

“Hizkuntz Plangintzaren beharra ez da berbera hizkuntza guztietan. Egoera desberdinak dira literatur tradizio luzea, morfologia sinple samarra eta dialektoen arteko diferentzia txikiak dituen hizkuntza batena eta literatur tradizio txikia, morfologia konplexua, dialektoen arteko diferentzia handiak eta Hizkuntza Standardaren barnean konpetentzian dauden forma asko dituen eta XIX. edo XX. mendera arte kultura konplexu baten komunikabide izan ez delako hitz berriak multzoka sortzeko premia larria duen hizkuntza batena.”

XX. mendean izan dira han eta hemen hizkuntz plangintzak bere teoria eta metodologia propioak izan behar dituela eta horiek landuko dituen zientziaren adar berri bat behar dela esan duten hizkuntzalariak.

Izen desberdinak ere eman zaizkio zientzia horri. Adibidez A. Peskovskij-ek “hizkuntzalaritza praktikoa” deitu dio. Bruno Migliorini-k eta H. Spang-Hansen-ek “hizkuntzalaritza aplikatua”, Chicago-ko Punya Sloka Ray irakasleak “hizkuntzalaritza preskriptiboa” deitu dio, Einar Hau-gen norvegiar hizkuntzalariak “hizkuntzalaritza arauemailea” eta Valter Tauli-k “hizkuntz plangintzaren teoria”.

Jokabide berberaren aldekoak dira Terminologia Zientifikoaz arduraztzen diren espezialistak eta kasu honetan ez atzera geratutako hizkuntzentzat bakarrik. Terminologia Zientifikoak ez du inola ere onartzen kontrolik gabeko eboluziorik eta arrazoi sinpleengatik: eskatzen duen zehaztasunagatik eta hitz teknikoaren ugaritasun izugarriagatik.

Aurrerago itzuliko gara gai honetara, baina, lan horri heldu baino lehen, Terminologia Zientifikoa zer den eta hizkuntza arruntarekin dituen diferentzia eta interferentziak argitu beharko ditugu.

3. Hizkuntza berezituen ezaugarriak

Hizkuntza berezituen alderdirik bereziena terminologia da, zeren sintaxi eta estilo aldetik testu teknikoek izaten dituzten berezitasunak bigarren mailakoak bait dira.

Terminologia teknikoa, jakintzaren eremu bateko espezialistek beren artean eta beren lanbideko arazoez hitz egiten dutenean erabiltzen dutena da. Ezaugarri hau, ikus daitekeenez, soziologikoa da linguistikoa baino gehiago, izan ere, termino bat teknikoa izango da disziplina bati dagokion neurrian ez berez duen ezaugarriren batengatik.

Termino tekniko asko hizkuntza arruntetik hartzen dira eta espezialistek modu teknikoan erabiltzen dituztenean bakarrik hartzen dute balio teknikoa.

Adibidez “lana” da hizkuntza arruntean ehun kiloko pisu bati lurrera jausi gabe eskuetan eustea baina fisikarien artean “lana” egin dela esateko ez da aski indarra egitea, gainera indar horrek desplazamendua sortu behar du eta orduan indarraren eta desplazamenduaren arteko biderkadura izango da “lana”. Astronomo batek, fisika asko jakin arren, gau osoa teleskopiotik begira geldi-geldi jarrita egotea besterik egin ez badu ere, lan asko egin duela esango digu, baina orduan ez da “lan” termino teknikoa erabiltzen ari hitz arrunta baizik.

Termino berbera har dezakete hizkuntza arruntetik espezialitate tekniko desberdinek esanahi tekniko desberdinekin.

Adibidez, banku bateko langile batentzat “letra” gauza bat da eta musikari batentzat beste bat.

“Diskoa” mediku batentzat gauza bat da, musikari batentzat beste bat, atleta batentzat beste bat eta informatikari batentzat beste bat. Semantika

aldetik, hizkuntza teknikoak, hizkuntza arruntarekin konparatzeko, zehaztasun handiagokoa da eta unibokoagoa ere bai. Hizkuntza arruntean “beroa” esan ala “tenperatura” esan berdintsu da textuinguru askotan: “gela honetan bero egiten du” ala “gela honetako tenperatura handia da” perpausetan “bero” eta “tenperatura” sinonimotzat har daitezke, hizkera jantziagoa ala apalagoa izatea alde batera utziz gero behintzat.

Terminologia aztertzen ari den batentzat, ordea, oso kontzeptu desberdinei dagozkien terminoak direla esango digu. Itsasoko urak bero ugari du baina haren tenperatura aski txikia da poxpolo piztu batenarekin konparatzeko eta honek eman dezakeen beroa itxura gabe txikiagoa da itsasoak eman dezakeenarekin konparatzeko.

Biunibokotasuna bilatzen da disziplina baten barnean kontzeptuen eta terminoen artean. Sinonimia eta homonimia gaitzetsi egiten dira. Hizkuntza teknikoan ambiguitasunari eta zehazkabetasunari itzuri egin nahi zaio. Sistema bezala trinkoa da, hots hizkuntza teknikoak hiztun teknikoaren adimean sortzen duen kontzeptuen multzoa askozaz zorrozkiago egituratua eta landuagoa da gai beretsuz hitz arruntez era daitekeena baino. Hizkuntza poetikoarekiko beste muturrean dago ia denean hizkuntza teknikoak. Hizkuntza teknikoan terminoak konnotazio eta afektibitatez guztiz soiliduta daude.

4. Terminologia teknikoaren arazoa

Normalizazio-prozesu batean lehentasunak zeintzu diren esana dute guk baino jakinduria handiagoa dutenek aspalditik.

Hala nola Valter Tauli-k (1973):

“Hizkuntz Plangintzaren eremurik zabalena hiztegiaren plangintza da eta lexikologia da Hizkuntz Plangintzaren Teoriak duen sailik handiena, berak bakarrik zientzi adar zabala osatzen duela-rik”.

Gaur egun teknologiak, natur zientziak, ekonomiak eta beste eremutako gaiek gure eguneroko bizitzan eragin handia dute eta gai horiek erabilteak suposatzen duen hiztegi zabal eta hazkorrak problema latzak sortzen dizkie hainbat eta hainbat hizkuntzei.

Horrela Unesco-ren babesean eratutako Infoterm nazioarteko terminologi arazoetarako informazio-zentruko zuzendari den Felber (1980) jaunak argi eta garbi planteatu du zientziak eta teknikak beren terminologiak standardizatzeko duten premia eta horrela pentsatzeko dituen arazoak zifra batzuren bidez justifikatu ditu:

“Orainsu arte hizkuntzalaritza hizkuntza arruntaren garapen libre eta zuzendugabeaz besterik ez zen arduratzen. Hizkuntzalaritzak ez zuen standardizazioaren beharrik hizkuntza arrunteko hiztegia ez delako oso zabala (600.000 hitz inguru ingelesez) hizkun-

tza teknikoarekin konparatzeko. Shakespeare-k bere lanetan 23.000 hitz desberdin erabili zituen. Hizkuntza teknikoetan ordea zientziaren eta teknologiaren aurrerapen lasterragatik sortzen den kontzeptuen eta terminoen ugaritasuna dela ta (lau milioi kontzeptu injinerutza elektrikoan bakarrik) terminologiaren garapen askeak nahaste onartezina lekarke”.

Bizimodu modernoak dakarren lexiko-sorkuntza ugaria bereziki inportantea da hain zuzen ere modernizatu beharrean aurkitzen diren hizkuntzetan. Horrela konprenitu dute gure antzera dauden zenbait lekutan eta lanean hasi dira. Ahalegin batzuren berri emateko ondokoak aipatuko ditugu.

Indiako The Indian Board of Scientific Terminology, 1950ean jaiotako erakundeak, Hindi Hizkuntzan 350.000 hitz berri sortzeko lana leporatu zuen eta 1963rako 290.000 sortuak zituen.

Indonesian, Lembaga Bahasa Nasional-ek (Hizkuntz Institutu Nazionalak) 321.710 termino berri sortu ditu hamabost urtetan (S. Takdir Alisjahbana, 1976).

Egiptoko Akademiak ere bere gain hartu zuen terminologia zientifiko eta tekniko berria sortzeko xedea. Horretarako espezialistaz osatutako batzordeak izendatu zituen. Bakoitzak bere alorra lantzen zuen; fisika eta kimika, biologia, zuzenbidea etab. Akademiak urteroko Majallat Mafma al-Lughah-al-Arabyya izeneko bere urtekari ofizialean argitaratzen zituen. 1957tik 1964era bitartean 20.000 termino argitaratu zituen. Lan honek izan zuen ordea kritikarik, motelegia zelako zituzten eskeei aurpegi emateko.

Txekierari dagokionez Txekieraren Institutuak terminologi standardizazioan lan egiten du, 500.000 fitxako fitxategi bat du terminologia berezituentzat eta terminologi arauetan eta hiztegiatan ematen ditu argitara. Hizkuntzalariekin batera gai bakoitzeko espezialistek lan egiten dute batzorde berezituetan. 1977an zeuden batzorderik inportanteenak Meatzaritzat-Terminologiarena, Zeramika-Terminologiarena eta Makinen Eraikuntzari buruzkoarena ziren.

Eslovakeraren kasuan beste hainbeste egiten du Eslovakiar Hizkuntzalaritza-Institutuak (L. Drozd eta M. Roudny —1980, 29-41 or.—).

Israelgo Va'ad Halshon Ha Ivrit, hebraieraren Akademiak ere egin izan ditu horrelako lanak, hala nola, Automobilaren Hiztegia (1955). Hebraieraren kasuan dozena bat urteko lanaren ondorio bezala lortua dute oinarrizko hiztegi modernoa (Nahir, 1979) eta 1953tik aurrera Hebraieraren Akademiak egin duen lanik handienetako bat lexiko-sorkuntzarekin lotuta egon da.

Akademiaren Batzar Orokorrak Terminologi Batzordearen eskuetan uzten du lan hau eta honek bere azpibatzerdeak ditu arlo desberdinetarako. Azpibatzerde hauen kopurua aldatu egiten da urtetik urtera: 1970ean adibidez 25 espezialitatetan ari ziren lanean azpibatzerdeok: kimika, arkeologia, sukaldaritzat, gimnasia, psikologia...

Azpibatzerde hauen lana Akademiaren Batzar Orokorrak onartu ondoren hitz-zerrendak argitaratu egiten dira.

Euskara Teknikoaren kasuan bikoitza da beraz jokabide deskribatzaile hutsa ez egokitzat jotzeko arrazoia: bat hizkuntza menperatu eta beraz atzeratua izatea eta bestetik hizkuntza teknikoa izatea. Gaur gaurkoz ez dugu erakunde arauemailerik euskara teknikoaren arloan, zeren Euskaltzaindiak esana bait du 1981. urteko Abenduaren 28ko Hondarribiako bileraren ondorio bezala, hiztegi teknikoen arazoa ez duela ukituko eta horixe da oraingoz Euskal Herri osoarentzat arauak argitaratzekoan itzala duen erakunde bakarra.

BIBLIOGRAFIA

- ALISJAHBANA, S. Takdir “Language Policy, Language engineering and Literacy in Indonesia and Malaysia”, in: *Advances in Language Planning* Joshua Fishman (ed.) (The Hague, Paris 1974, Mouton).
- ALTOMA, Salih J. “Language Education in Arab Countries and the Role of the Academies”, in *Advances...*
- BERNARDEZ, Enrique. *Introducción a la lingüística del texto* (Madrid: Espasa-Calpe, 1982).
- DRIZD, L; ROUDNY, M. “Language Planning and Standardization of Terminology in Czechoslovakia”, *International Journal of the Sociology of Language*, 23, 1980, 29-41 or.
- FELBER, H. “International Standardization of Terminology: Theoretical and Methodological Aspects”. *Int. J. Soc. Lang.* 23, 65-79.
- FISHMAN, Joshua. *Sociología del lenguaje* (Madrid: Cátedra 1979).
- HIERRO, S. PESCADOR, José. *Principios de la Filosofía del lenguaje*. (Madrid: Alianza, 1982).
- LYONS, J. *Introduction to theoretical linguistics* (Cambridge 1969) baita ere espainieraz *Introducción en la lingüística teórica* (Barcelona, 1973: Teide).
- NAHIR, M. “Lexical Modernization in Hebrew and the Extra-Academy Contribution”, in *Word* 30. 1-2, 105 or. (1979).
- PETOFI, Janos S.; POLECH, Adalbert; SAVIGNY, Eike van (Hrsag.) *Fachsprache-Umgangssprache* (Kronberg: Scriptor, 1975).
- PETOFI, Janos S.; S. GARCIA BERRIA, A. *Lingüística del texto y crítica literaria* (Madrid: Comunicación, 1978).
- TAULI, V. “The Theory of Language planning”, in *Advances...*